



193. zenbakia

· URTARRILA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Euroveloren Jauntsarasko pasaderetako zubitik

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 3an bidalia


Olerkia



Jon Gerediaga

Beldur den horrek
eremu ospela darama barruan,
eta haizeak ezpalkaturiko zuhaitzak,
eta likenak, eta zazpi tronpeten zarata
egunero-egunero zerua apurtuz
eta erdibituz.

Eta barrurago oraindik
baso heze eta arbatsu bat
isilik, berari begira, bere zain,
eta bizitzaren sugar ederraren
dardara
negua zeharkatzeko.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Eneko Yurramendi eta Iosu Jauregi

• NOIZ ETA ZER DELA ETA IRITSI ZINETEN AIZAROTZA?

Iosu: Ni duela 15 urte pasatxo iritsi nintzen. Iruñeko Alde Zaharrea bizi nintzen lehen eta nazkatuta nengoen. Herri batera joan nahi nuen, Udabe nuen buruan hasieran gurasoak han etxe bat zutelako eta udaro horra joaten ginelako. Baina, azkenean, Aizarotzen atera zen aukera eta hara joan nintzen.

Eneko: Ni zertxobait beranduago iritsi nintzen, 2006 bukaeran edo. 13 bat urte izanen dira iritsi nintzela, Aizarozko bigarren txandakoa izan nintzen. Hango errotara etorri nintzen bizitzera, eta han egin nituen lehen urteak. Eta zergatik? Ba hasieran ez nuen Basaburua nik buruan: Donostian jaioa naiz, bizi berriz Iruñean, Lleidan, Navalcarneron... hainbat buelta

eman eta gero, banuen gogoia eremu euskaldun batean bizitzekoa, eta landa eremuan bazen askoz hobe. Hori izan zen arrazoietako bat.

• HEMEN EZAGUTU ZENUTEN ELKAR, BERAZ?

I: Nik Eneko aurretik bistaz ezagutzen nuen, Iruñeko Katu tabernatik (barreak). Baina bai, laguntasuna gerora egin genuen jada hemen bizi ginela.

E: Nik bera ere noizbait ikusia banuen, bai, Tuterako pestetan edo... baina gutxi.

• MEXIKORTXO BANDAKO KIDEAK ZARETE. NOIZ ETA NONDIK NORA SORTU ZENUTEN TALDEA?

I: Enekoren ideia izan zen. Egun batean etorri zen galdetuz: "Zuk badakizu gitarra jotzen?". Eta nik erantzun nion: "Bai, bai, oso

gitarjole ona naiz, hiru akorde jotzen dakit!" (barreak). Eta hiru akorderekin egin genuen banda. Bera da garuna, berak pentsatzen du, egiten ditu hitzak, akordeak... eta nik jartzen ditut nire memoria ona eta hiru akordeak!

E: Bai, gu ordurako lagunak ginen herrian, eta noiznahi festak antolatzen aritzen ginen. Ohartu ginen bazegoela hor behar bat, zeren ikusten genuen festetan kontzertuak ekartzeak ze dirutza kostatzen zuen, eta gainera geroz eta jende gutxiago etortzen zela kanpotik eta. Orduan, komentatu nion Iosuri: "Zergatik ez dugu guk jotzen?". Horrela hasi zen hau guztia, 2011ko abenduan izan zen.

• NOIZTIK ETA ZERGATIK ARITZEN ZARETE PULUNPEREN BANAKETAN?

E: Aurreko banatzaileak utzi zuen, eta norbait behar zen. Ea norbait ezagutzen genuen galdetzeko deitu ziguten orduan, eta beno... ez dakigu ezetz esaten!

I: Bai, baina egia da gustura egiten dugula eta ez zaigula ezer kostatzen! Gainera, gure asmoa da herriko lagun baten etxean bukatzea banaketa lata bat eskuan! (barreak)

E: Bestetik, gainera, Pulunpen askotan ikusten ditugu eskualdeko euskaldun zaharrak, euskara mantendu dutenak, eta nik uste dut nolabait haiekin zorretan ere bagaudela, euskararen alde guk ere zerbait egin beharra dugula. Hona etorri gara eremu euskaldun batera, eta, beraz, zerbaitetan lagundu badezakegu, horrelako gauza txikia izanda ere, bada aurrera!



▲ Aizarozko banatzaile berriak dira Mexikortxotarrak



Mundiala

Zozketa

Zozketa Mundiala: sariak, bazter guztietara

Pasa da, honezkero, duela 7 urte egiten hasi ginen Zozketa Mundialaren edizio berri bat. Urtarrilaren 12an egin genuen, beti bezala, Esan Erran irratian, zuzenean; eta, berriz ere, Nora Ramoneda eta Aitor Arangoa izan genituen esatari. Aurten 134 sari banatu dira, Euskal Herri osoan, 10 zerri gizen, haien artean. Zerria eskuratu duten batzuekin hitz egin dugu.

134 sari aurten, gehienak, Iraizotza joan direnak, zazpi, hain zuzen ere. Aurreko urtean bezala, Iraizotzekin batera, Etxaleku izan da sari gehien jaso dituen herria, bost sari jaso baititu, Beruetek izan duen sari kopuru bera. Arraitz, Ostitz eta Muskitz gertu ibili dira, 4 sarirekin bakoitza. Kanpora begira, Iruñean banatu ditugu sari gehien, 16. Dena den, Euskal Herriko bazter askotara joan dira zozketa mundialeko sariak: Zarautz, Oiartzun eta Gernika kasu. Batzuentzat zerria da gure sariarik preziatuena, eta zozketaren sinbolo duguna, eta sari hori eskuratu duten batzuekin hitz egin dugu.

• LUIS ETXEZURIETA, OIARTZUN

Bergarako Luis Gorosabelekin erdibana 20 txartel inguru erosten dituzte urtero, eta pasa den urtean egurrezko sardeskak eskuratu ondoren, aurten, azkenean, sari potoloa eskuratu dute, zerri gizen bat. Irurtzungo Albaitaritzan egiten du lan Luis Etxezurietak, eta, bertan, Udabeko Imanol lankideak saltzen dizkio: "Medikuak ez zidan gomendatu, baina pozik, bai (barreak). Pentsu pixko bat emanen dizuet zerria gehiago gizentzeko, eta gero eramango dut (barreak). Negua pasako dugu honekin!"

• RITA ARREGI, LEKUNBERRI:

"200 euro nahiago ditut. Zer egin behar dut nik zerri batekin!", esan zigun bigarren zerria eskuratu zue-nak, Rita Arregik, saria irabazi zuela sinestu ezinik. "Bazen garaia, urtero erosten ditut eta! 10, 15 txartel inguru erosi nituen! Eskertzen da!"

• MARI CARMEN ERIZE, OSTITZ:

Orain arte Pulunpe banatzailea izan denak irabazi zuen beste zerri gizen bat, Mari Carmen Erizek, alegia. Berak ere, Auzako Beheko harategian

Luis Etxezubieta, Oiartzun ▼



Rita Arregi, Lekunberri ▲



gastatzeko 200 euroko balea nahiago du: "Ez da bizirik izanen, ezta?!". Mari Carmenek bizpahiru txartel-sorta saltzen ditu Ostitzen, eta berretako txartel batzuk hartu zituen, baina ez zuen saririk espero: "Ez nuen espero, ez zait inoiz ezer tokatu, nahiz eta urtero erosten ditudan".

● PEDRO SENOSIAIN, OLAGUE:

Ziur aski saridun zaharrena izanen da Pedro Senosiain, 94 urte baititu. "Zerriarekin luzatuko dugu bizial (barreak)". 1925ean jaio zen, eta sasoi onean dago: "Pastillekin gaude beti, laguntzarekin, baina segitzen dut nolabait ere". Pozik hartu zuen notizia.

● ANGEL MARI ILARREGI, GELBENTZU:

Zozketako txartelak urtero erosten dituen arren, zerbait tokatzen zaion lehen aldia da: "Ez da broma bat izanen, ezta?" erantzun digu berria jasotzean. Berak ere 200 euroak hartuko ditu: "Bonoa nahiago. Ez naiz oso zerrizalea, baina oso pozik sarriarengatik, bai".

● ALFREDO OLAGUE, IRAIZOTZ:

Anaiarekin kontsultatu eta gero, zerrria hiltzea erabaki dute, argazkian ikusten den bezala. "Hori bai poza! Aurten ez baitugu zerririk hazi!". Urtarrilaren 25ean hil zuten Iraizotzen, eta 15 lagun bildu ziren.

● ANA ZARITIEGI, BEUNTZA:

Txartelak erosten dituen bigarren urtea besterik ez da, eta sari potoloa eskuratu du gaurgero! Ezin zuen sinistu, saria zein zen esan genionean: "zer??? zerri bat??? Ai, ama! 200 euroko bonoa nahiago dut, bai, bai! Ez dut tokirik zerriarendako! (barreak)".



Ana Zartiegi, Beuntza ▲



▲ Urtarrilaren 25ean hil zuten, Iraizotzen, Alfredo Olaguek irabazi zuen zerrria



Goxua



Errezeta pausoz-pauso entzuteko

Goxua

Hilabete honetan Oroketako Ola auzora etorri gara. Bertan, Lourdes Agirrek goxua prestatzen irakatsi digu. Ingurukoak goxua eroatera ohitu zirela ikustean hasi zen Lourdes postre hori prestatzen, hain zaila ezin zuela izan pentsatu baitzuen. Zaila edo erraza den esaten ez gara ausartzen, baina Lourdesek goxua goxo-goxoa egiten duela bai! Hemen dituzu jarraitu dituen pauso guztiak. Animatuko al zara prestatzera?

OSAGAIK

Behi esnea: litro bat

Azukrea:

sei koilarakada, esnari gehitzeko. Esne-gainari gehitzeko, norberak nahi adina. Karameloa egiteko, norberaren gustura.

Bost arrautz gorringo

Flan potax-a: sobre bat

Kanela

Esnegaina: litro erdia

Esne bollo xerratuak:
hiru inguru

• PAUSOAK:

1) Arrautza gorringoak eta flan pota sobre bat esne hotzarekin ongi nahastu. Irabiagailuarekin ere errepasso bat ematen ahal zaio, fin-fina geratzea nahi baitugu. Iraztontzitik ere pasatu daiteke, pikorrik edo pinportarik gelditu bada, kendu ahal izateko.

2) Litro bat behi esne irakiten jarri, kanela pixka batekin. Berotzen denean, azukrea gehitu (sei koilarakada). Eragin, esneak azukrea ongi har dezan.

3) Esnari hasieran nahastutako arrautza gorringoak eta flan gehitu. Sutan jarri, eta eragin, loditu arte. Aterako den kremari "bizkotxada" esaten diote. Loditu denean, hozten utzi.

4) "Bizkotxada" hozten den bitartean, esne-gainari azukrea

nahastu, eta harrotu. Ongi loditu dela ziurtatu, bestela gero jaitsi egingen da.

5) Goxua zerbitzatuko dugun ontzian esne-gaina ongi zabaldu. Esne-gainaren gainean, xerratutako esne-opila jarri. Esne-gain harrotua ongi tapatu, gero "bizkotxada" pasa ez dadin, eta esne-gaina ez dezan urtu.

6) Crema edo "bizkotxada" behin hoztuta, esne-opilen gainean jarri.

7) Karameloa egin. Horretarako, azukrea sutan urtu. Ez da beharrezkoa ez urik, ez beste ezer gehitzea.

8) Bukatzeko, nahi adina karamelo jarri kremaren gainean.

Kitto! Hartu goilara eta dastatu goxua!

▼ Goxua dastatzeko prest



▲ Lourdes Arregi kamiseta arrosarekin. Ondoan, Milagros, Oroketako Ankamotza etxeko. Goxua egiten ikasi zuen gurekin batean



Olagueko istripu larriak extabaida pixtu du berriz ere

Bi gazte hil ziren istripuan, eta, horregatik, ahots ugariak neurriak hartzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

5 ibilgailuk talka egin zuten N-121-A errepidean, urtarrilaren 11n, arratsaldeko 8etan. 4x4 ibilgailu baten eta kamioi baten arteko aurrez aurreko talka batek eragin zuen istripua. Kamioi hori jo zuen haren gibeletik zihoan biktimen autoak.

Hildako bi gazteekin batean, 19 urteko igantziar bat eta 21 urteko donostiar bat, hirugarren bidaiari bat zihoan atzeko jarlekuan (25 urteko gazte lesakar bat), eta zauri larririk gabe atera zen.

Istripu horretan, gainera, bertze lau zauritu ere izan ziren: 34 urteko gazte urroztar bat eta Doneztebeko hiru gehiago (53 urteko gizon bat, 47 urteko emakume bat eta 16 urteko gazte bat). Kamioiaren gidaria, 42 urteko gizon errusiar bat, onik atera zen.

Hildakoetako bat Bortzirietakoa zenez eta zaurituen artean ere inguru horretakoak bazirenez, Bortziriak, Baztan eta Malerrekako udalek idatzi bat igorri diote Nafarroako Gobernuari eskatzeko "baliabide guztiak jar ditzala lehenbailehen odoluste hau bukatzeko".

Idatzian esaten dutenez, "berriz ere indargabe sentitzen gara errepide madarikatu honek eragindako enegarren tragediaren aitzinean. Ez dira bi hilabete pasa Azpilkuetako bi ama-alaben heriotzaren berri izan

genuela, eta asteburu honetan berriro odola gatzatu zaigu". Errepide berean hil ziren bi emakumeak, Ostitzen, hain zuzen ere.

Idatzia bukatzeko, udal ordezkariak diote jabetzen direla errepide horrek dituen zailtasunez, baina herritarrak bidean hiltzen ari dira: "Batzuek hiru erreai aipatuko dituzte, bertzeek autobidea, bertze batzuk finantzaketa dute gogoan, edo ondorio ekonomikoak, baina inork ez dezala ahantzi politikara jolasten garen bitartean herritarrak bidean gelditzen ari zaizkigula".

Gertakari honen aurrean, Nafarroako Gobernuko kontseilaria den Bernardo Zirizak 2+1 konponbidea defendatu du, egiteko prozesuan dagoen proiektua. 70 milioiko kostua du aurreratzeko hirugarren errai bat jartzean datzan egitasmoak. UPNk, ordea, 2+1 proiektua proposatu zuen alderdiak, autobia bat eskatu du orain. Aldi berean, change.org webgunean bizilagun bat sinadurak biltzen ari da autobidearen alde, eta 7.000 baino gehiago lortu ditu dagoeneko. Nafarroako Gobernuaren arabera, 1.000 milioi euro inguruko kostua izan lezakete autobia egiteko lanek. Bere ustez, 2+1 konponbidea segurua izanen da, bi norabideak bereiztuko dituen barrera bat izanen baitu.

2019an 138 istripu izan dira errepide horretan, eta azken 3 urteetan, 15 hildako izan dira. 9.500 ibilgailu igarotzen dira egunero errepide horretatik, eta horien herena kamioiak dira.



▲ *Olague istripua*



AEKren eta IKAREN laguntzarekin egindako atala

Euskara
errazeko
artikulua

Lantzen, bizilagun berriak

Lantzen ibiliz gero artalde handi bat edo bi ikusi daitezke karreteraren bi aldeetara. Luis Mariñelarena bertako bizilagunak Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioan azaldu zuenez, ardi latxa burugorria arrazako ardiak osatutako artaldeak dira, kanpotik ekarritakoak: "Ez dira Lanzkoak, kanpotik ekarritakoak baizik. Aspaldi artalde asko izaten zen, baina ardi gutxi geratzen da herrian. Gainera, aspaldi belar naturala jaten zuten". Gauzak aldatu dira ordea: "Aspalditik, ukuilu handiko abeltzainek, produkzioa handitzeko Ingalaterra eta Italia aldetik ekarritako haziak sartzen dituzte. Hauek arront indartsuak dira, hotzak ez die kalte egiten, eta asko handitzen dira. Horregatik, neguan ardiak eramaten ez badira, euriak edo elurrak iristen direnean arazoak izaten dira". Horrela, Lantzen bizpahiru urte daramatzate Azpirotz aldeko artzai bat ekartzen. "Gauza bera gertatzen da inguruko herrietan, Gipuzkoa aldeko artzainak, beren artalde handiendako bazka aski ez dutenak, zerbaitere ordaintzearen truke, artaldea ekartzen dute hiru hilabetez", esan digu Mariñelarenak.

Ez dakigu negurako bakarrik etorri den edo egonaldia luzatuko duen, baina artaldeekin batera beste bizilagun berri bat agertu da Lantzen, basakatua. Luis Mariñelarena: "Mendian ibiltzen den jendeak komentatu dute ikusi dutela. Ez zekiten bat edo bi ziren, denbora gutxian bi leku ezberdinetan ikusi baitzituzten. Dirudenez, eme bat da bi kumerekin. Lanzko mendietan basakatua agertzea pozgarria da, arriskuan baitago".

Ardiak beti izan dira abere garrantzitsuak euskal munduan. Trinkuharrien garaiko artzaintzaren arrastoak ere aurkitu izan dira gure mendietan. Horregatik, "ardi" hitzetik datozen esaera eta hitz-mordoa daukagu euskal hiztegian. Honako hauek adibide:

- **Hiztegia**
- **Ardiki:** ardiaren haragia
- **Ardi-aska:** ardiei jaten emateko tokia
- **Ardi-galdu:** pertsona bakartia
- **Ardi-larru:** ardiaren larrua
- **Arditan egin:** ardiak zaintzen jardun
- **Arkazte:** ardi gaztea
- **Arkorotz:** ardiaren gorotza
- **Arkume:** ardiaren kumea
- **Artalde:** ardi osatutako taldea.
- **Artaiztur:** ardiei ileia mozteko guraize edo aitzurrak.
- **Artantzua:** ardi antzua.
- **Artegi//arditegi/artetxe:** artaldea gordetzeko txabola.
- **Artile:** ardiaren ilea.
- **Artizkune:** ardiak jezteko tokia
- **Artzain:** ardiak zaitzen dituen persona
- **Artzaintza:** ardiak zaintzean datzan jarduera eta lanbidea.
- **Artzakur/ardi-txakur:** ardiak zaintzen



Ardiak. Egilea, Jara Villanueva, Flickr-en. ▲



**Euskara
errazeko
artikulu**

AEKren eta IKAREN laguntzarekin egindako atala

Mikel Taberna idazlea, Etxalekuko Irakurle Taldean gonbidatu

Mikel Taberna idazle lesakarra izan zen ilbeltzaren 4an Etxalekuko Biltokian, *Txokolatezko dinamita* liburua aurkezten. Uda amaieran martxan jarri zen Irakurle Taldeak gonbidatu zuen idazlea euren saiora, eta giro ederrean aritu ziren liburuaren inguruan hizketan hurbildutakoak. Literatura, jana eta edana... ba al da plan hoberik?

Irailean hasi zuen Etxalekuko (Imotz) euskarazko Irakurle Taldeak bere ibilbidea, irakurzaletasuna zuten eskualdeko hainbat lagunek bultzatuta. Sagrario Alemanek dinamizatu zuen uda amaieran egin zuten lehen bilera, eta lauzpabost lagunek sortu nahi zen irakurle taldean parte hartzeko konpromisoa eta gogoazaldu zuten orduan. "Euskaraz irakurtzeko ohitura sortzea eta indartzea da helburua", azaldu zigun Idoia Astiz etxalekuarrak udan Esan Erran Irratian egin genion

elkarrizketan. "Ez dugu lana hizkuntza aldetik aztertzen, istorioaz hitz egiten dugu: zer iruditu zaigun, zer gustatu zaigun eta zer ez... Guztia konfidantzazko giro lasaiean", zioen Astizek.

Zortzi narrazioz osatutako liburua da Mikel Tabernaren *Txokolatezko dinamita*. Istorio guztiak 1936-1939 arteko gerra zibilaren bueltan daude kokatuta, eta zenbait protagonista narrazio batean baino gehiagotan agertzen dira. Tabernaren lan honez gain, Filipe Bidarteren *Bakartasunaz bi hitz*, Nell Leyshonen *Esnearen kolorekoa* eta Joseba Sarrionandiaren *Kolosala* izango da irakurri dituzte. Orain, Garbiñe Ubedaren *Sasieskola* lana ari dira irakurtzen, eta otsailaren 8an eginen dute azken hau komentatzeko Saioa. Hurrengoak, berriz, Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen *Miñan* izanen da. Irakurzaletak, animatu!



▲ Jan edanean gustura aritu ziren liburuaz hizketan

AZALPENA:

Mikel Taberna idazle lesakarra Biltokian IZAN ZEN edo EGON ZEN? (gazteleraz, "estuvo").

Euskaraz, egon aditzak egoera estatikoa adierazten du; hau da, subjektua geldirik dagoenean erabiltzen da (adibidez, amona ohean dago).

Izan aditzak, berriz, ez du egoera jakin bat markatzen; hau da, ez dakigu subjektua geldi dagoen edo zerbait egiten ari den (adibidez,

amona kalean da esaldian, posible da amona banku batean eserita egotea edo pilotan aritzea).

Horrela, izan aditzak adiera ezberdinak har ditzake:

- Azterketa oso zaila izan da (izan)
- Atzo mendian izan ginen (egon)
- Arazo asko izan ditugu (eduki)



Igoako Ostatua, Basaburuko Pintxo Lehiaketan bigarrenaz garaile

Beste urte batez, Basaburuko Pintxo Lehiaketa egin zuten azaroaren 30ean eta abenduaren 1, 7 eta 8an. Eskualdeko lau ostatak hartu zuten parte lehiaketan: Jauntsarasko Apeztegi Berri Tabernak eta Berueteko, Orokietako eta Igoako ostatuak. Aurten, bigarrenaz jarraian, Igoako Ostatua suertatu da lehiaketako irabazle.

Yasna Barrera Bravo eta Javier Lledo Bluas dira Igoako Ostatuko arduradunak. 'Foiez eta almendraz betetako orburu bonboia' izeneko pintxoak izan zen sariduna. "Foie freskoz betetako bi orburu bihotz ziren, ondoren ogi birrindutik paseak eta frijituak". Gainera, sagar konpota eta almendrak zituen pintxoak.

Sasoiko, Nafarroako eta transgenikorik gabeko produktuekin prestatuak izan behar zuten parte hartzaileen pintxoak, eta bezeroek 2,5 eurotan zuten horiek dastatzeko eta edari bat hartzeko aukera. Gainera, epaimahai lanak ere egin zituzten bezeroek: ostatu bakoitzean kutxa bat zegoen

pintxorik goxoenen alde bozka emateko. Basaburuko Gizarte Politika Batzordea izan da antolaitailea, beste behin.

Zorionak irabazleei eta baita parte hartzaile guztiei, lan bikaina egin dute eta!



Igoako Ostatuko kideak sariarekin ▲

Jolaskide proiektua martxan da Atetzen

3-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat proposamena egin zuen duela aste batzuk Atezko Goizargi Santxok: neguko igande arratsaldeetan, jolas librea eta euskara uztartuz gaztetxoentzako topaleku bat sortzea Atezko udaletxeko goiko aretoan. Ekimenaren helburu nagusia eskolatik kanpoko eremu informalean euskararen erabilera bultzatzea da. Jolaskiden parte hartzeko bi baldintza jarri zituzten: haurrek beraiek parte hartu nahi izatea, eta D ereduan matrikulatuak egotea edo euskara menderatzea.

Abenduaren 24rako antzerkia prestatu zuten eskualdeko haur eta gaztetxoek, Santxo bidelagun zutela. Ekimena oso ongi atera zela eta, horri jarraipena emateko ideiatik tiraka bururatu zitzaion proposamena. Urtarrilaren 22an bukatu zen izena emateko epea, eta proposamenak arrakasta handia

izan duela azaldu zigun Santxok: "17 ume apuntatu dira eta oso pozik gaude izan duen arrakasta eta interesagatik. Egia da, ikusi beharko dugula nola egiten dugun, kopuru handia da eta". Urtarrilaren 26ean hasi eta martxoaren lehena arte luzatuko da ekimena.



Haurrak Larraintzarko ikastetxean jostaketan ▲

Anueko berriemaileen bila ari dira Esan Erranen

Eskualdeko udalerrri bakoitzeko kolaboratzaile bat dute Esan Erraneko Egun Ero irratsaioan. Udalerrietako berriemaileak hilabetean behin sartzen dira irratsaioan, beren bailaren berri emateko.

Horrela, Eritzeko Iban Baztan izaten da Atetzen inguruan hitz egiten duena; Ihabengo Arantxa Agirreurreta Basaburuko berriemailea da; Imotzen Xabier Iturriotz Zapa dugu kolaboratzailea, Erasokoa; Luis Mariñelarena, Lantzen; eta Iraizozko Leire Etxeberria, Ultzaman.

Anuen Aritzuko Amaia Iraizotzek ematen zituen bere bailarako berriak, baina, tamalez, lanak ez dio utzi kolaborazioarekin jarraitzea. Esan Erran eta Egun Erotik eskerrak ematen diote bere prestutasunagatik eta orain arte egindako lanarengatik. Orain, berriemaile berria behar dute

Anueko gertaerarik eta ekimenenik ez galtzeko. Prest bazaude edo laguntzerik baduzu idatzi pulunpe@gmail.com helbide elektronikora. Aldez aurretik eskerrik asko!



Iturria, anue.es ▲

Egunean Behineko taldea, Ultzama aldean

Otsailaren 3an hasiko da Egunean Behin jokoaren denboraldi berri bat, eta Esan Erranen eskualdeko talde bat sortu dugu. Batu nahi al duzu? Sari propioak ere izanen baitira!

Ezagutzen al duzu Egunean Behin euskarazko galdera-erantzunen joko famatua? 2019an sortu zuen Codesyntax enpresa euskaldunak, eta urte bukaeran 62.000 pertsona baino gehiagok deskargatua zuten aplikazioa.

Izan ere, mugikorrean jokatzeko tribial estiloko galdera-erantzunen jokoa da Egunean Behin, eta

bere izenak dioen bezala, egunean behin partida bakarra jokatzeko aukera dago. 10 galdera erantzun behar dira, ahalik eta azkarren. "Zenbat eta gehiago asmatu, zenbat eta azkarrago asmatu, hobeto!" diote bere sortzaileek. Eta horrela da, horren arabera puntu gehiago edo gutxiago lortuko baitituzu.

Taldeak sortzeko aukera ematen du, gainera, jokoak, eta ezagunen artean lehiatu daiteke modu horretan. Bada, hori da Esan Erranen egin nahi duguna. Ultzama aldeko talde bat sortu dugu, eta denboraldi bukaeran gure sari propioak banatzeko asmoa dugu, Egunean Behineko sortzaileen modura, irabazleak irabazi ditzake, baina baita edozein parte-hartzailek ere, zozketa eginen baitugu. Batu nahi al duzu? Eskualdekoa bazara edo gurean bizi bazara esteka horretan besterik ez duzu sartu behar: <https://eguneanbehin.app.link/MTYTiC8Eq3>

Urtarrilean jokoa gelditu du Codesyntaxek, hobekuntzak ezartzeko, eta otsailaren 3an hasiko da denboraldi berria, apirilaren 5a arte iraungo duena. Horregatik, adi eta sartu taldean egun hori baino lehen! Animo eta zorte on!

▲ Egunean Behin joko famatua



iritzia



Andoni Egaña,
Berria

Kolon

2020ko urtarrilak 15

Giza ahuldade ezagunenatarikoa da. Gu bezain xelebrea edo xelebrea goa den jendearen berri izatean lasaitu bat hartzen dugu. **Reality**-etarako hautaprobak egiten dituztenek ongi baino hobeto dakite hori. Aurtengo **El conquistador del Caribe** lehiaketako parte hartzaileen aurkezpenari begira ari nintzaion joan zen astelehen gauetz. Helburua neu nahiko ongi sentiaraztea baldin bazen, lortu zutela aitortu beharko dut...

Aurkeztu zituzten parte hartzaileak. Azaldu zuten, Julian lantziren eskutik, aurtengo jokalekua. Dominikar Errepublikako itsasertzetik mintzo zitzaigun lesakarra. Berak eman zigun hiru taldeen izendapenaren berri: Guaraguak, Majak eta Caguamak. Belatz handiak, sugeak eta dortokak hala ziren aurkezleak aditzera eman zigunez, garai bateko taíno indigenen hizkuntzan.

Bertakoekiko sentiberatasun ukitu bat zatekeen, Dominikar Errepublika dena Kristobal Kolonen **La Española** izan ez balitz, espainiarren eta europarren lehen kokaleku finkoa Ameriketako lurretan. Gaztelerak birrindutako hizkuntza bati keinu bat egiten ari ziren... gatzeleraz. Eta gure telebista publikoan! Egungo konkistatzaileek ez daukate itsasontzietan abentura ezinezkoetara abiatu beharrik. Aski dute pantaila bat eta agintarien axolarik eza.

Eraso sexista bati nola erantzun ikasteko hitzaldia egin dute Lizason

Ilbeltzaren 9an eman zuten Lizasoko Egain Elkartean **Eraso sexista baten aurrean nola erantzun?** hitzaldia. Jende talde polita hurbildu zen Emagin Elkarteko Ekhine Eizagirrek zuzendutako saiora: 28 bat lagunek hartu zuten parte saioan, 24 emakumezkoak eta 4 gizonezkoak.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu zuen hitzaldia, aurtengo Lizasoko festetan gertatu zen eraso sexistaren harira. Indarkeria matxistaren nondik norakoak azaldu eta gero, taldeetan banatuta indarkeria horri aurre egiteko estrategia eta baliabide indibidual, instituzional eta kolektiboak identifikatu ahal izan zituzten.



▲ Jende dezente hartu zuen parte lan saioan



◀ Gerendiango zahar etxean ere izan ziren Erregeak. Hor dituzue, ongi apainak gainera, Joxepita, Martin eta Errege beltza, Miguel Angel, Afrikatik etorri berri-berria.

Latasako Paleta goma eta Frontenis txapelketa, abiatzear

Pilotarekin lotutako txapelketa eta ekimenez ez dute etenik gure eskualdean. Pilota Goxoa txapelketa bukatzerako, pala eta frontenis txapelketaren antolakuntza jarriak ziren Imozko eta Basaburuko Kirol Batzordeak. Urtarrilaren 24ean bukatu zen izena emateko epea, eta Mikel Jaunarena 'Zepelok' irratian azaldu zigunez, ordurako bazeuden bikote dezente izena emanda. Emakumeentzako frontenis txapelketan maila bakarra izanen da, eta gizonezkoentzako paleta goma txapelketan, berriz, bi maila.

Otsailaren 7ko asteburuan hasiko dira txapelketarekin. Partida guztiak Latasako (Imotz) frontoian jokatuko dira, ostiral gauetan eta larunbat goiz eta arratsaldeetan. Igande goizak atzeratutako partidentzat utziko dituztela azaldu zigun Zepelok. Pilota Goxoa txapelketaren garai beretsuan hasi ziren pala eta frontenis txapelketa ere antolatzen, 30 urte inguru pasatu izan direla kalkulatzen du gartzarondarrak. Badu ibilbide luzea txapelketa honek ere, beraz.

Txapelketan izena eman duten bikote kopurua:

Gizonezkoak Paleta goma lehen maila **10 bikote**
Gizonezkoak Paleta goma bigarren maila **10 bikote**
Emakumezkoak frontenis **5 bikote**



pala txapelketa iaz ▲



Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com

Baditun beste bi

Hemen baditun 14 erakusketa ikusgai izan zen abenduan Kondestable jauregian, eta otsailean emakumeen etxean jarriko dute. Bertan, euskararen alde lan egin duten 14 emakumeren ibilbidea ezagutu daiteke, eta haien artean, eskualdeko 4 emakumerena. Xole Erbiti euskara teknikaria eta irakaslearena ezagutu genuen aurreko Pulunpen; baita Ceferina Fontellas 'Abarzuza' liburudendaren arduraduna izan zenarena ere. Oraingoan, Sagarario Aleman euskaltzainarena eta Luzia Goñi bertsolariarena ikasiko dugu.

Hemen baditun 14 egitasmoa Ines Castiella Imaz irakaslearena izan zen, Iruñeko Udalarekin elkarlanean: "Duela pare bat urte hasi ginen honetan. Beste kontu batzuegatik emakumeak eta euskarak zientzian eta teknologian izandako presentzia aztertzen ari nintzen. Iruñeko Udalarekin harremanetan jarri nintzen, eta euskararen alde lan egindako emakume batzuei ikusgarritasuna ematea ideia polita iruditu zitzaion". Zerrenda bat osatzen jarri ziren, eta, oraingo honetan, 14ri egin diete omenaldia. Hau hasiera besterik ez da, ordea. Gehiago biltzeko eta omentzeko asmoa dute. "Badira lan garrantzitsua egin duten emakumeak, baina askotan ez dira inon agertzen", azaltzen du Castiellak.

Luzia Goñi Ollas, Aizarotz

Luzia Goñi Aizarotzen jaio zen duela 91 urte. Emakume bizi-bizia izandakoa, oraindik sasoiari dagoela ikusten da, nahiz eta iktus bat izan zuen pasa den urrian. "22 auto ezagutu dizkiot nik, emakume aurreratua izan da beti", esaten digu Esther Iturbe Goñik, alabak. Berarekin bizi da Tirapun, eta bertan duten etxean hartu gaituzte.

Esan bezala, Aizarotzen sortua, txikia zela, ordea, Gartzarona joan behar izan zuen: "Hiru aberatsek erosi zuten herria, maite genuen herria, eta bi urteko tartea eman ziguten irteteko, legea horrela zegoela eta...Gure aitari Gartzarongo batek saldu zion lurra, eta etxe berria egin zuen han, Gartzarongo Benta". 1935ean utzi zuten Aizarotz, pena handiz.

“**Badira lan garrantzitsua egin duten emakumeak, baina askotan ez dira inon agertzen**”

Aita perratzailea eta arotza, lehenengo festa aretoa jarri zuen Aizarotzen. Beharbada berarengandik jaso zuen langile izaera hori. 14 urterekin Lekunberrira joan zen, Ayestaran hotelera zerbitzatzera. Gero, Errenteriako eta Donostiako tabernetan ere ibili zen, sukaldean. Ondoren Eibarren ere aritu zen lanean, eta orduantxe ezagutu zuen bere senarra izanen zena, Azkoitiarra. Elgoibarrera joan ziren bizitzera, taberna txiki bat baitzeukan senarrak. 1951ko uholde ikaragarrien ondorioz, taberna urez bete, eta alde egin behar izan zuten, Soralezera. Senarra kanoi fabrikari eta Luzia torlojuak egiten hasi zen lanean. Oihalak saltzeko dendatxo bat ere jarri zuten. Gainera, Luzia, telebistak saltzen ibili zen.

Baina senarrari bihotzekoak eman zion, eta medikuak Nafarroara etortzea gomendatu zion, Gipuzkoako kutsaduratik ihes egiteko. Ordurako 8 eta 4 urteko umeak zituzten. Senarrak ez zuen



Luzia Goñi Ollas

Gipuzkoa utzi nahi izan, eta Luzia umeeekin bakarrik etorri zen, bere alabak azaldu digun bezala: "Esan bezala, aurreratua zen bere garaiendako, eta denbora batez bereizita bizi izan ziren, nahiz eta banandu ez". Luziak Iruñeko San Lorenzo kalean 40 pertsonendako jatetxea jarri zuen, Gau Xuria. Gida-baimena atera zuen, eta auto zahar bat erosi zuen, eta senarrari gidatzen irakatsi zion.

Bigarren bihotzekoa izan zuen senarrak, eta handik gutxira hil zitzaion, 47 urte besterik ez zituela, "Orduan hasi nintzen bertsotan, plazaz-plaza taloak egiten eta saltzen ibili ginen 18 urtez alaba eta biok". Garai haietako kronikari gisa, orduan gertatzen zenaren inguruan idazten zituen bertsoak, eta gaur, batzuk buruz esateko gai da, oraindik. Bere bizitza laburbiltzen duen *Hamalau ofizio, hamabost mixeri*, esate baterako. "Barrutik ateratzen zitzaizkion, ez zuen inon ikasi", esaten digu alabak.

Ondoren, Berriozarren ere jatetxea izan zuen, eta gasolindegi bateko sukaldean aritu zen. Azkenik, fabrika batean, 200 langileri bazkaltzen ematen ziela hartu zuen erretiroa. Orain, esan bezala, Tirapun bizi da, bertan landetxea baitu alabak.

Sagrario Aleman Astitz, Etxaleku

Aurkezpen gutxi behar du Sagrario Aleman Astitzek. 1952an jaio zen Etxalekun, euskara eman dion herria, euskaltzain izendatu zuteneko sarrera-hitzaldian esan zuen bezala: "Gaur egun, euskaldun askok eta askok eskolan hartu dute euskara edo nire lanbide izan den horretan, euskaltegietan. Bagara batzuk, suerte handia izan dugunok, etxean hartu dugunak euskara. Baina etxean hartzeaz gain, herrian ere hartu dugu. Hau da, karrikan ere, lagunartean, jendearen artean euskaraz hitz egin ahal izan dugula. Gure herrian bazen familia bat kanpotik etorri zena eta haurrek berehala ikasi zuten euskara, horrek esan nahi du hizkuntza bizirik dela, karrikan ere erabiltzen dela". Bere etxean hartu gaitu euskaltzainak, eta 2008an Etxalekun egin zuen Euskaltzaindiko sarrera ekitaldian aipatutako ideia hori azaldu digu.

Baditun 14 erakusketaren inaugurazioan egin zieten omenaldian izan zen Sagrario Aleman, eta berari eman zioten guztion izenean hitza hartzeko ardura. Erakusketan azaltzea ohore bat izan da berarentzat: "Normalean emakumeak gutxi ateratzen dira plazara, eta euskarazko gauzak baldin badira, gutxiago. Orduan, ohore bat da alde horretatik ateratzea. Aldi

berean, batzuek oso lan pertsonala da egin dutena, eta ulertzen dut pertsona bera bereiztea, bide bat ireki duelako. Nire kasuan talde baten lana da, eta proiektu bat aurrera eramateko lana; beraz, nahiago dut proiektua bera goraiatzea".

Asko dira Sagrario Alemanek eramandako proiektuak. Arturo Campion euskaltegian aritu da 1972tik, eta bertako zuzendaria izan zen, 1982tik jubilatua zen arte. Hain zuzen ere, eta farmazia ikastea erabaki zuen arren, hori izan da bere lanik gustukoena: "Ikasketak hasterekin batera hasi nintzen helduen euskalduntzearekin, eta ikaragarri gustatu zait eta gustatzen zait, ez naiz inoiz aspertu, nahiz eta lanbide bezala utzi izan dudana. Euskara transmititu behar zela ikusi nuen, eta bazen jendea ikasi nahi zuena. Helduekin aritzea izugarri gustatu zait, elkarriketarako eta iritziak trukatzeko bide handia egiten delako. Gainera, joaten zen jendeak benetan ikasi nahi zuen. Lankide batek beti esaten zuen 'merezi ez ditugun ikasleak ditugu', maitagarriak benetan izan dira gure ikasleak".

Honekin guztiarekin batean, Euskal Herrian Euskaraz taldearen hastapenetan militatu zuen, Zaldiko Maldiko elkartearen bultzatzaileetako bat izan da, Karrikin ere aritu zen, Euskalerrria irratia sorrarera, Euskararen Aldeko Batzordean eta baita Euskaldunon Egunkariaren sorreran ere.

Arturo Campionen jubilatua bai, baina lanean jarraitzen du euskararen alde. Hizkuntzaren egoeraz galdetuta, alde onak eta txarrak ikusten ditu. Inoiz baino euskaldun gehiago dagoela baitio, "baina kakotxen artean jarri behar dugu hori, euskaraz jakitea baldin bada, bai, baina nik uste dut euskaraz bizitzea dela, eta nik uste aukera gutxi dagoela horretarako. Aldi berean, euskara lehen sartzen ez zen eremu batzuetan sartu da: administrazioan, zientzian, unibertsitatean...".



▲ Sagrario Aleman Astitz. Euskaltzain sarrera-hitzaldian, 2008an, Etxalekun.







Sagarrondo sail berria Oskotzen

Azken aldian Oskoztik (Imotz) pasatu direnak ohartu izan dira sagarrondo sail ederra dutela landatuta Apezetxeakoek. Aspaldidanik zituzten sagarrondoak Oskozko Jose Ignacio Goldaratzen familiaren lurretan. "Lurak Jose Ignaciorenak dira, lehenago bere aitarenak eta aurretik aitonenak ziren, eta sagarrondoak hor aspalditik egon dira, duela 80 bat urtetik agian", azaldu digu Leire Iribarrenek, Goldaratzen bikoteak eta gaur egun sagarrondo gehiago landatzeko proiektua abiatu duenak. Orkoiengoa da Iribarren, eta orain han bizi badira ere, asko etortzen dira Oskotza.

Sagarrondoei zukua ateratzen

Lursailean lehendik zeuden sagarrondoetatik ateratzen zituzten sagarrekin frogak egiten hasi ziren duela zenbait urte Iribarren eta Goldaratz. "Sagardoa egiteko erabiltzen den sagar mota da gurea, eta zuku oso ona ateratzen da horrelakoekin". Hasierako urteetan Aramaiora eramaten zituzten sagarrak hango instalazio batean sagar zukua egin ahal izateko. "Kuota ordaintzen genuen instalazioak erabiltzeagatik eta bueltan zukua genekarren", dio.

Modu horretan egin zuten zukua lehen urteetan, baina Nafarroako ekoizle kooperatiba batekin egin zuten topo aurrerago. Zukua egiteko makineria eta tresneria (matxakadora, pasteurizatzailea...) etxe batetik bestera darabilte kooperatibako kideek, eta oskoztarrek modu horretan egiten dute orain zukua. "Egiten genuen

sagar zukuak arrakasta handia zuen landetxera etortzen ziren bezeroen eta gure lagunen artean, eta hori ikusita, bururatu zitzaigun sagarrondo gehiago landa genitzakeela pixkanaka produktuak merkaturatzen hasteko".

Eredu ekologikoan ekoizten

7.600 sagarrondo berri landatu dituzte Iribarrenek eta Goldaratzek zortzi hektareako lursail berrian. Denak bezala, zuhaitzok ere bere denbora behar dute fruituak ematen hasteko. "Hiru urtetan hasiko dira zuhaitzak sagarrak ematen, eta orduan zukuak, marmeladak eta horrelakoak ekoizti eta saltzea da gure asmoa", dio Iribarrenek.

Eredu ekologikoa hautatu dute. Produzizio modu hori zergatik erabaki duten galdetu diogu: "Ingurumena zaintzeko, biodibertsitatea hobetzeko, kalitate oneko elikagaiak lortzeko, eta azken batean, pertsona guztiak hobeki bizitzeko", erantzun digu.

Landaketak egin aurretik lan handia egin behar izan dute, izan ere, lurra prestatu egin beharra da, eta behin landaketa egin eta gero ere, kimaketak, plagek ahalik eta kalte gutxien eragiteko lanak... beti badago zer egin. Teknikari baten laguntza jasotzen dute lan guzti horiek egin ahal izateko, eta sagarren inguruko hainbat kurtso ere jasotzen ari dira.

▼ 7.600 sagarrondo berri landatu dituzte Oskotzen



▲ Etorkizunean zukua, marmelada eta bestelakoak ekoiztea dute asmo



Pau Vargas - Panda Artist Management

Euskal Herriko nahiz kanpoko musika talde ugari eramaten dituzte Panda Artist Managementeko kideek. Bartzelonan eta Gironan ez ezik, Euskal Herrian ere badute bulegoa. Badakizue non? Beramendin, Basaburuan! Pau Vargas bertan bizi da duela zenbait urtetik, eta bertatik egiten du lan, Euskal Herriko Pandaren bulegoko beste lau kideekin batera. JP Lohian & Klonen Klana, Peiremans, KOP, Lendakaris Muertos, Ezetaerre, Gatibu, Zetak, La Ira Rap, Non Servium... asko dira beraiekin lan egiten duten taldeak!

• NOIZ ETA ZERGATIK ETORRI ZINEN BERAMENDIRA?

Berotik ihesi etorri nintzen Gironatik Euskal Herrira. Hasieran Lekunberrin bizitu nintzen, eta duela lau bat urte etorri nintzen Beramendira, nire bikotekidea hemen bizi zela eta.

• NOLAKOA DA MANAGER BATEN LANA, ZER EGITEN DUZUE?

Artisten ibilbide musikalean soluzioak ematea da gure lana: kontzertuak bilatzea, disko fisiko nahiz digitalak banatzea, promozioa egitea, bidaien koordinazioa eta alde teknikoa, merchandising guztia... Artista eta proiektu bakoitzarekin lan egiteko modua ezberdina izaten da, dena den.

• ETXETIK EGITEN DUZU LAN?

Lanaren zati handi bat ordenagailuarekin eta internet bidez egiten dut hemendik, Beramendiko Pandaren bulegotik. Baina horrez gain toki batetik bestera ere asko mugitzea tokatzen zaigu.

• ZE ESTILOKO ARTISTAK DARAMATZAZUE PANDA ARTIST MANAGEMENTEN?

Ez ditugu musika estilo zehatz bateko taldeak eramaten, era guztietakoak ditugu gure artean. Lana egiteko modua da gehiago batzen gaituena, taldeen estiloa baino: autogestionatu nahi duten taldeak daramatzagu, taldearen ibilbidea euren esku izan nahi dutenak.

• BERRI TXARRAK ZUEKIN ARITU DA URTE HAUETAN. NOLA BIZI IZAN DUZUE AGURRA?

Mundu guztiak pentsatzen du triste gaudela Berri Txarrak amaiera dela eta, baina ni ez nago triste, bagenekien aspalditxotik momentu hau iritsiko zela eta, Gorkak esana zigun gainera. Azkenean, sormen eta emozio

karga handia du horrelako proiektu batek, eta presioa handia da. Urte hau gozatzekoa izan da niretzat. 18 bat urte egin ditut beraiekin, eta familia bezala dira niretzat, eta uste dut momentu hain onean egonda taldea gelditzea erabakitzea ausarta izan dela. Ausarta, eta aldi berean eskertua.

• ZER DA GURE ESKUALDEAN BIZITZETIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?

Dudarik gabe, lasaitasuna. Kanpoan lan egiten dudanean inguruan izaten dudan jendetzatik, abiaduratik, soinutik kontraste handia da: hona iristean gelditu egiten naiz, erlaxatu, kontzentratzeko ahalmena dut... Telefonoak berdin jotzen du eta e-mailak berdin iristen dira, baina beste lasaitasun bat daukat hemen.



▲ Pau Vargas Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizurekin



Eta Nafarroan, zer?: Mola eta Karlismoa

Orain hamasei urte idatzi nituen Pulunpen argitaratzeko hiru artikulu 1936ko gerrari buruz. Lehenbizikoarekin batera, Basaburua eta Imozko, frentean hildako mutilen zerrenda. Eta Espainiatik begiratuta gerraz artikulu motz bat. Ondoren Nafarroatik begiratuta, gerraren analisi labur bat, Ultzama eta Odieta hildako mutilen zerrendekin. Gauza batengatik edo beste batengatik, hilen zerrenda ez zen atera Pulunpen nahiz idatzi hau atera izan. Gaurkoan biak batera dioazkizue.

Hurrengo batean, hirugarren artikulua eta Atetz, Anue eta Lantzekin gauza bera egingen dut.

Gaurkoan, Nafarroan gerra hasiera nola izan zen aipatuko dugu. 1936. urtean azkeneko gerla karlistak 61 urte egin zituen bukatu zela, eta geroztik, Nafarroan aldaketa tikiak sumatu ziren. Euskal Herriko lau probintzietan jokatu zen batez ere hirugarren gerla karlista. Geroztik, ordea, Gipuzkoa eta Bizkaian aldaketa handiak izan ziren: industriaren zabaltzea, inmigrazioa eta abar. Politika aldetik, berriz, euskal nazionalismoaren sorrera eta hedapena. Eta sozialismoa. Nafarroan, berriz, ez zen izan industrializatorik eta euskal nazionalismoak ere, indar gutxi hartu zuen. Eta Nafarroan bezala, Araban.

Severo Ilarregui ▼



1931ko apirilaren 15ean Errepublika ezarri zen egun beretik hasi ziren karlistak nola botako zuten pentsatzen. Bestalde, erlijioak indar handia zuen eta Errepublika, ia hasieratik, etsaitzat hartu zuen Eliza Katolikoak. Horra hor bi eragile inportante, karlismoa eta erlijioa. Eta saltsa horretan kuxta sartzea gustatuko zitzaion franko hurbilduko zen: Oligarkia, jauntxoak, militarrek...Eta horrela aise zen jendearen berotzea eta gerraren alde jartzea. Bost urteren buruan lehertuko zen dena, egokiera sortu orduko.

Errepublikako Gobernuak ere zenbait huts nabarmen egin zituen: Diputazioa desegin, hau da diputatuak kendu eta gestora batez ordezkatu, gehientsuenak errepublikaren aldekoak zirelarik; eta hau foruen kontrakotzat jo zen Nafarroan. Edo Eliza Katolikoarekin izan zituen gora-behera liskartsuak, askotan, neurritz kanpokoak edo desegokiak suertatu zirelarik, gehiago oraindik Nafarroan, hain katolikoa izanik. Erljioaren aferak izugarritzko garrantzia izan zuen Nafarroan; Espainian baino askoz ere gehiago.

Karlismoa laster hasi zen bere indar armatuak prestatzen, lehenbizi **dekuriak** deitzen zirenak eta ondoren **erreketekak**. Errepublikak iraun zuen bost urtetan karlismoak



Ruperto Cenoz ▲



Antonio Archel ▲



Frontean hil ziren soldaduak



▲ Victor Francisco Irurita

milaka lagun zituen militarki prestatu eta izugarritzko arma pila erosi eta ezkutatu.

Hau gutxi balitz, Errepublikako Gobernuak Mola jeneralaz fidatzen ez eta Madrildik urrutiarazi nahi: Nafarroara igorri zuen, bertako Gobernadore Militar izendatu zuelarik 1936ko martxoaren 14an. Gobernuaren huts egite galanta, jakinik Mola nolako etsaia zuen, eta militar honentzat, berriz, toki aproposagorik ezin izan: Frantziako mugatik hurbil alde batetik eta bestetik, Nafarroako bazter gehienak gizon armatuz josirik, Errepublikaren kontra ekiteko, gerrarako prest. Esan duguna, izugarritzko hutsa!

Egokiera, 1936ko otsailen 16an sortu zen. Ezkerrak irabazi zituen Espainiako hauteskundeak eta aipatu dugun jeneral hau hasi zen Nafarroara etorri orduko, denen buru, prestaketa lanetan, bai, Emilio Mola Vidal, errebeldeen artean "El Director" izengoitiaz ezaguna zena. Eta Diario de Navarra ere ez zebilen urruti gerrarako prestaketa guztian. Bertako zuzendaria, Garcilaso (Raimundo Garcia) ere azpilan guztietan hor zebilen, buru-belarri, karlistak, militarrek..., denak elkarrekin josten. Eta egun argiz, aldiz, egunkaria sua zeriola, jendea berotzen, jendea manipulatzeko.

Uztailaren 18an, oraindik gerra deklaratu gabe zegoenean, Gobernuaren alde atera zen Guardia Zibilen burua, José Rodríguez Medel komandantea, bere menekoek hil zuten, tiroz. Berehala etorriko zenaren seinale eta bide erakusle. Biharamunean, uztailaren 19an, igandea, Molak gerra bandoa eman eta militarrek karrikara atera zituen. Karlistak, berriz, trumilka, prestatuak zituzten autobusetan Nafarroako herri guztietatik etorri eta Gaztelu plazan desfilatatu zuten, eguzkipean, berehala Madril edo Gipuzkoa aldera atera eta okupatzeko.

Ezkerreko jendea eta nazionalista zirenak, gordean eta beldurrez



▲ Ricardo Iraizoz

josirik, ereindako gorrotoa antzematen baitzen haizean berean ere. Molak "izua**ren bidez**" irabazi behar zela zioen. Nafarroa guztian errepresioa nagusitu zen. Errepresio ikaragarria. Atxilotzeak eta hilketak ez ziren ez faltako handik aurrera, batez ere lehen hilabeteetan. Ia 3.500 lagun, egunez edo gauzez atxilotu eta, nonahi tiroz hil zituzten. Nafarroa kristauan ikaragarria gertatu zen. Molaren konsigna, **izua hedatu**, zinez bete zen, jarraitzaile asko baitzituen.

Ustez motz izanen zen gerra hiru urtez luzatu zen eta frontean, beste 4000 mila nafar gazte hil ziren.

 Txurdan

Hiztegia

Liskartsu, gatazkatsu=
conflictivo

Afera=tema

Egokiera=Aukera

Egunkaria=diario

Menekoa=subordinado

Izua=terror



▲ Juan Larrainzar



▲ Victor Guelbenzu



Ultzama

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOAZEN	SORTEGUNA	HERIOTZ EGUNA	ZENBAT URTEKIN	REENPLAZ	NON ARI ZEN ZERBITZEN
MARTÍN	BARBERENA	OLAGÜE	ALKOTZ	Joxepenea	22/4/17	5/8/37	20	1938	Falanjea
JOSÉ	IRÁIZOZ	GASCUE	ALKOTZ	Marimigelenea	2/2/18	7/6/39	21	1939	Armada
DOMINGO	OTERMIN	ARTOLA	ALKOTZ	San Prudentzio		8/6/38			Armada
GREGORIO	URROZ	ELIZONDO	ALKOTZ	Gurutzena (Xala)	10/3/15	30/5/37	22	1936	Armada
ANTONIO	ILUNDÁIN	VILLANUEVA	ARRAITZ	Migelenea (Orkin)	11/6/14	9/1/38	23	1935	Armada
ANGEL	IRIBERRI	EZCURRA	ARRAITZ	Migelen Benta	2/2/11	12/3/38	27	1932	Armada
JOSÉ JOAQUÍN	LARRÁYOZ	CARNEIRO	ARRAITZ	Razkinen etxea (1)	8/8/10	29/3/38	27	1931	Armada
JUAN	ALSÚA	INZA	AUZA	Eskolako 2. Pisua	2/8/13	12/2/37	23	1934	Armada
JOSÉ	ASTIASARÁN	OYARZUN	AUZA	"Laurtzeneko maistartogia"	4/1/10	22/5/38	28	1931	Armada
JOSÉ	GOÑI	NARVÁEZ	AUZA	Sabinoren etxea	6/5/15	10/8/37	22	1936	Armada
JUAN	LARRÁINZAR	VILLANUEVA	AUZA	Juantronea	17/11/09	12/8/38	28	1930	Reketea
MIGUEL	IBARRA	ORONÓZ	ELTSO	Apezaren etxea	4/5/13	3/4/37	23	1934	Armada
FRANCISCO	BIURRARENA	TORAL	ELTZABURU	Aldattegiko borda	19/4/12	9/7/37	25	1933	Armada
TEODORO	CERIO	ALDAVE	ELTZABURU	Arburuko borda	1/4/15	10/7/38	23	1936	Reketea
VÍCTOR	GUELBENZU	GOÑI	ELTZABURU	"Martiniñeneko maistartogia"	12/4/13	12/6/38	25	1934	Armada
RICARDO	IRÁIZOZ	MARIEZCURRENA	ELTZABURU	Mitxelkonea	9/6/18	15/11/38	20	1939	Armada
TOMÁS	MUTUBERRÍA	ARCE	ELTZABURU	Mitxelkoneko borda	19/9/14	18/8/36	21	1935	Armada
RAMÓN	AIZCORBE	CÍA	ILARREGUI	Migeltxonea	26/10/14	11/5/37	22	1935	Armada
MATEO	ECHEVERRÍA	BARBERENA	IRAIZOTZ	Garaxeneko edo Graxeneko Maistartogia	23/3/09	6/1/38	28	1930	Falanjea
FRANCISCO	GOÑI	GUELBENZU	IRAIZOTZ	Apezenea	2/4/18	9/5/37	19	1939	Falanjea
MARTÍN	GOÑI	GUELBENZU	IRAIZOTZ	Apezenea	17/8/15	12/5/37	21	1936	Falanjea
ESTEBAN	GOÑI	OLAGÜE	IRAIZOTZ	Beitikoetxea/ Barberia	30/9/17	25/11/38	21	1938	Falanjea
JOSÉ LUIS	URRUTIA	LASAGA	IRAIZOTZ	Elgorrena (Argizillen etxea)"	9/10/16	1/5/37	20	1937	Falanjea
PEDRO	CIGANDA	ILARREGUI	LARRAINTZAR	Perustenea	9/5/10	8/8/36	26	1931	Reketea
BASILIO	ELETA	MUTUBERRÍA	LARRAINTZAR	Eletan etxea (2) (desagertua)"	1/5/14	12/5/37	23	1935	Armada
MARTÍN	ERICE	GÁRRIZ	LARRAINTZAR	Maixuaren etxea	5/5/18	15/4/37	18	1939	Falanjea
JOSÉ	LARRÁYOZ	BALDA	LARRAINTZAR	Arotzenea	9/9/15	8/8/36	20	1936	Reketea
JUAN	LEACHE	LABIANO	LIZASO	Lizasoko katea (3)	10/1/17	26/5/38	21	1938	Armada
JOSÉ	ERICE	EZCURRA	ZENOTZ	Arotzenea 1	9/9/15	13/6/37	21	1936	Armada
MIGUEL	MURGUÍA	ECHEPARE	ZENOTZ	Arotzenea 2	6/1/15	15/4/37	22	1936	Armada

Odieta

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOAZEN	SORTEGUNA	HERIOTZ EGUNA	ZENBAT URTEKIN	REENPLAZ	NON ARI ZEN ZERBITZEN
MARTÍN	URTASUN	BEUNZA	ERRIPA	Beuntxenea (1)	25/5/15	13/7/37	22	1936	Armada
SEVERO	ILARREGUI	CIÁURRIZ	GASKUE	Urrixenea	19/3/08	27/12/38	30	1929	Falanjea
RUPERTO	CENOZ	ELIZONDO	LATASA	Garaikoetxea	5/5/15	Desagertua	?	1936	Armada
ANTONIO	ARCHEL	OLAIZ	OSTITZ	Txurionea	11/12/16	10/11/38	21	1937	Armada
JUSTO	ARCHEL	OLAIZ	OSTITZ	Txurionea	2/11/14	1/12/37	23	1935	Armada
VÍCTOR	IRURITA	ZALBA	OSTITZ	Iriartea	21/7/17	11/8/37	20	1938	Reketea
LUIS	URANGA	CENOZ	OSTITZ	Sastreneia	18/6/13	14/1/37	23	1934	Armada
TEODORO	GUERENDIAIN	SATOSTEGUI	ZIAURRITZ	Errota	9/11/12	25/6/38	25	1933	Reketea



Abarrrrrrá!!!!

Ez besten abarra!

Zuhurrak, abarrak eta beste pixti batzuk

Ekea ere ez luke tximinitik ateratzen utziko. Zuhurra edo zimurra denarengatik esaten da gure alderdian, Imotzen behintzat hala duk ikasia, ekea ere ez luke... . Zimurra eze-eze, hori mixerablea izatea ere bada!

Zimur eta **zur**, hitz horiek ikasi genituen ttiki-ttikitatik baina kontrakoa nik beranduago ikasi nuen. Zein den kontrakoa? **Abar** hitza. Norbaitengatik **abarra** dela badioguzeresan nahi dugu? Deusen zuhurtasunik gabe gastatzen duena; ondasunak fundamendurik gabe galtzera botatzen dituena, neurririk ez duena... gizon edo emakume **abarra** izatea da.

Lehen aldiz entzun nuenean hitz hau karrikan, etxean aipatu nuen aitak eta amak ez ote zekiten edo. Bai to! Biek ongi baino hobeki zekiten abar hitzaren esanahia, hitz arrunta zen. Ni nintzen ez nekiena, jakina, eta hala izaten da gehienetan, ezjakintasuna gazte kontua izaten da askotan, eritasuna, batzutan ikasiz-ikasiz sendatuz joaten dena, baina gehiegitan eginkizun izaten duguna, gerorako uzten dugulako. Den dela, zerbaitengatik dugu esaera zahar hau: *zahar hitz, zuhur hitz*.

Mutiletan, berriz, ikasi nuen atsotitz hau: **Zahiean zuhur, irinean abar**. Eta asko gustatu zitzaidan, izugarri, askotan ikusten nuena ongi baino hobeki islatzen baitzuen: *zahiean zuhur edo zimur* diren jenderik ez al duzu ezagutzen? Inportantzia gutxiko kontuetan zimur, zuhur, eta gastu handia eragiten dutenetan, eskuzabal, abar eta ero. Hori da maiz-maiz ikusten duguna, izan

auto, etxe, bidaia... maiz **abarkeria**. Besteen buruetan ikusten dut nik eta neronenan ere bai. Giza kondizioa da ia-ia.

Ardo frexkoaz ari garenez, ardoan ez zaitezela zikoitza izan, ardo frexko eta onaren bila saia zaitez, denen premia izanen dugu eta, gero urdaileko eta buruko minik izan ez dezagun. Ardo on-ona, gure onerako, osasuna ez baitugu saltzeko. Ardo txar guziak utz: *zure buruari ez harrika eman*, esaten zuten gure aurrekoek.

Ostalari, atera ardo hortatik denondako, barra-barra! Topa!



Txurdan

OHARRA:

"Abarra" hitza ez dator Euskaltzaindiko hiztegian, nahiz "Orotarikoan" ederki dokumentua datorren. Seguru luze gabe sartuko dutela, ikusirik gainera "prodigo" erdal hitza ordezkatzeko daudenak ez direla honen pisukoak..

Hiztegia

Zimurra, zuhurra: zekena edo zikoitza beste hizkera batzuetan.

Eginkizuna: 1)...2)...3) Egiteko dagoena.

Zahia: garia irindutakoan, bazterrean gelditzen den gari azala. Salvado.

Barra-barra: neurririk gabe, azkar, konturik atera gabe!

Esaldiak:

Ez besteren abarra, alua, ergela.... (Horrelako esaldiak memoriaz ikasi behar dira gero hizketarakoan ibili ahal izateko)

Eta errefrau edo atsotitzen bat edo beste momoriaz ikastea ere ez legoke gaizki, batez ere gure zaharrek oraindik ahoan edo oroimenean dituztenak.



Erosi, erosi, barra barra! ▲

Zorionak Zorionak !



Zorionak Andoni !!



Zorionak Filomena !!



Zorionak Mirentxu !!



Zorionak Irñaki !!



Zorionak Martin !!



Zorionak Iraia !!



Zorionak Juanito, Ane eta Constantino !!



Zorionduzure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com



Juana Goñi Olague

Barberriako juanitak 2020ko urtarrilaren 21ean 100 urte egin ditu

Iraizotzen jaioa, 1920an Martixeneko maiztartokian. Zazpi urtekin anaia Esteban, ahizpak Luzia eta Pakita, guraso eta amatxi, haien aitak eraiki berria zuen "Beheitikoetxea" etxera bizitzera joan ziren.

Gazte zelarrik, hainbat tokitan zerbitzari aritua izan da; Iruñan, Lindatxikia kaleko Ultzamarra izeneko jatetxean hainbat urtez lan egin zuen; Iparraldeko Hazparne herrira ere joan zen bertako etxe batetara. Hango oso oroimen politikak ditu. Ondoren,

Juan Simon jatetxean lanean aritu zen.

Aita hil zitzaien bere etxera bueltatu eta, geroztik, Barberrian, eman du bizitza.

Bertako taberna itxi bitarte sukaldatzen, lanean gelditu gabe aritu zen. Sukaldari bikaina da. Lanak akitu eta ondoren, hagitz gustokoa zuen bezeroekin solasean aritzea. Berdin gazte zein adinekoekin. Edozein gaiez aritzeko gaitasun eta jakinmina erakutsi du beti.

Emakume independentea. Bere gazte garaian, gizonezko mundu hartan, elegante, determinazioaz mugitu zen beti.

Oso andre langile, argia eta bixia izan da. 100 urtekin, sasozie borrokatzen jarraitzen du urteek sortutako gaitzekin ahal den autonomoen izan nahian.

Barberriako izeba Juanita, etxeko seme-alabentzat bigarren ama.

Aunitz urtez!



▲ Juana Goñi Olague



▲ Juana Goñi Olague

Mus Txapelketa

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako herriz herrikoak abian

Zazpi herrialdeetako mus jokalariai batzen dituen txapelketa da duela hamabi urtetik antolatzen dena. Herriz herrikako kanporaketak egin ondoren, herrialde mailakoetara sailkatzen dira bikote irabazleak, eta horietatik onenak Euskal Herri mailako finala jokatzeko aukera izaten dute final handiaren egunean.

Gure eskualdean ere badira urte batzuk Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatzen dela. Mikel Jaunarena 'Zepelo' gartzarondarra da antolatzaileetako bat, eta Esan Erran Irratian azaldu zigunez, eskualdeko bikote asko animatu dira aurten txapelketan parte hartzera. "Gauza guztietan bezala, honetan ere boladak izaten dira, baina jada urte batzuk badaramatzagu txapelketa antolatzen, eta egia da jendeari gustatzen zaiola eta animatzen dela".

• ESKUALDEKO KANPORAKETAK

Abenduaren 30ean hasi zituzten gure eskualdean kanporaketak, Iraizotzen (Ultzama). 11 bikotek eman zuten izena lehen saio hartan, eta Pello Orbegozo eta Mikel Mariñelarena suertatu ziren irabazle. Urtarrilaren 11n izan zen bigarren kanporaketa, Igoan (Basaburua), eta lau bikotek hartu zuten parte. Saio hartako irabazleak izan ziren Unai Martikorena eta Aingeru Etayo.

Hirugarren saioa, berriz, Aroztegiko Izarpe Kanpinean egin zuten, urtarrilaren 17an. Han ere arrakasta handia izan zuen txapelketak: 12 bikotek eman zuten izena. Irabazleak Eneko

Beratsain eta Patxi Etxeberria izan ziren. Gartzaron izan zen kanporaketen hurrengo geltokia: sei bikotek hartu zuten parte han eta garaileak Rikardo Arangoa eta Mikel Oltza izan ziren. Beste kanporaketa bat Latasan (Imotz) izan zen, urtarrilaren 18an, eta han ere arrakasta handia izan zen: 11 bikotek eman zuten izena eta Latasako Aritz Amador eta Harkaitz Arbizu izan ziren garaile.

Azken kanporaketa Orokietan izan zen, urtarrilaren 25ean, eta bertan garaile izan ziren Edurne Arrazubi eta Edurne Arangoa. Eskualdeko kanporaketa bakoitzeko irabazleak Iruñera joan dira herrialdeko kanporaketa jokatzera. Otsailaren

29an izanen da hori, zorte on beraz guztiei!

• FINAL HANDIA, MARTXOAREN 14AN ZIGOITIAN

Arabian izanen da aurtengo txapelketaren finala. Euskal Herri mailako irabazleendako sari bikainak izaten dira. Esaterako, txapeldunek 3.000 euro eta lau lagunendako nazioarteko bidaia irabaziko dute. Txapeldun ordeek, berriz, 1.500 euro eta bi lagunendako nazioarteko bidaia. Saririk irabazten ez dutenek ere aukera paregabea izanen dute egun polit bat pasatzeko, musaren aitzakian.



Aroztegin jokatuako kanporaketa ▲



Xaboi-pastilla,

Aurreko hilabetea hausnarketarako garaia izan zen, baina berriz ere natorkizue zuen egunerokotasuneko ohiturak arakatzeko gonbitea egin eta aldaketa txiki bat proposatzera. Espero dut honezkero zuen egunerokotasunean txertatu izana plastikozko ur-botilei uko egitea, plastikozko poltsak edikiteko taperraren erabilera

eta hamaiketakorako bilgarri berrerabilgarriak.

Oraingoan komunera sartuko gara, bertan erabiltzen diren produktu askok betetzen baitituzte etxetako ontziendako zakar poltsak: hortz-ore hodiak, gorputza eta ilea garbitzeko hainbat xaboi pote, komuna bera garbitzeko produktuen ontziak,... Paradoxa dirudien arren, gure gorputza eta etxea garbitzeko erabiltzen ditugun hainbat produktu eta hauen bilgarriekin, gure bizitokia den Amalurra zikintzen ari gara.

Pixkanaka eta modu erraz batean hasteagatik, hilabete honetan gorputza xaboi-pastillaz garbitzeko proposamena egingo dizuet, eta

nola ez, eskuak garbitzeko ere bai! Animatuz gero, honako abantailak izango dituzue:

- Azalerako askoz hobe da xaboi-pastilla naturalak erabiltzea, eta bereziki azal delikatuak dituzten horiendako.

- Bukatzen den aldiero ez duzue ontzi bat zakarrontzira bota beharko.

- Gainontzeko xaboiak baino kantitate txikiagoetan erabiltzen da eta ondorioz, ura gutxiago kutsatzen dugu.

Gainera, gogoratu etxean egin dezakezuela eta bide batez olio berrerabili!

Lurra



▲ xaboa



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



*eta.... Ostegunero
sak aldera Pintxo Pote*



**Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago**



Gustura!

A *gusto!* Behin eta berriro errepikatu zuen Enrique Villarealek, El Drogasek, bere ohiko esaldia pasa den urtarrilaren 10ean Larraintzarren sorpresaz eskaini zigun kontzertuan. Ez genuen espero. Elkarrizketa akustikoa egitera etorri behar zuen Txantreako musikaria, liburuez eta literaturaz mintzatzeraz, eta tartean hiruzpalau abesti jotzera...baina bere soinu-teknikariarekin, Iñaki Abregorekin, piano eta guzti, agertu zitzaigun; eta ekitaldi xume bat kontzertu ahaztezin bihurtu zuen.

Hogeita bat abesti kantatu zituen El Drogasek, pianoaren eta bere hamabi sokako gitarraren laguntzarekin, eta horietako batzuk lehenengo aldiz jotzen zuen

jendaurrean (bere azken diskoan, *Solo quiero brujas en esta noche sin compañía*, sartutako abestiak ziren).

Estreno mundiala, beraz, Ultzaman.

Eta abesti berrieekin batera, bere betiko kanta arrakastatsuak: *En blanco y negro*, *No sé qué hacer contigo*, *Somos la banda Motxila 21*, *Nada sin ti*, *Cordones de mimbre*, *Pétalos*, *Animal caliente*...

Abestea hitz-egitea baino gehiago nahiago zuela, argudiatu zuen Barricadako sortzaileak, baina, hala ere, kontzertuan aukera izan genuen El Drogasekin hitz-egiteko eta galderak egiteko. Azaldu zizkigun, adibidez, zergatik eta norentzat idatzi zituen hainbat abesti; edo nola

bizi duen bere amaren gaixotasuna, Alzheimerra; edo nor den bere *alter* ego bat, Eva Zanroi, olerkietan bere alde femeninoa ateratzeko erabiltzen duen ezizena; edo, bai, ze garrantzia duten bere lanetan (adibidez *La tierra esta sorda* diskoan) bere irakurketek...

Ekitaldi polita, intimoa, eta hunkigarria, azken batean, disfrutatu genuena, Larraintzarko Benta bete genuen guztiok (kuxkuxeo bat: publikoaren artean beste musikari ospetsu bat ikusi genuen: Gorka Urbizu, Berri Txarrak taldearen kitarrajole eta abeslaria).

A gusto, gustura, eta *requetegustora*, bai, El Drogasen eskuzabaltasunari eta berezkotasunari esker!



Bineta




Eta otsailean Pedro F. Razkin, la fuga taldearen abeslaria



Espero dugu hau bezalako ekitaldi gehiago liburutegitik antolatzea, rock eta literatura lotuz, eta, adibidez, otsailean etorriko da gurera beste rockero eta idazle bat, kasu honetan Pedro F. Razkin, La Fuga talde ospetsuaren azken abeslaria. Printzipioz pasa den urtean kaleratu zuen bere lehenengo olerki liburua, Pedradas, aurkeztera etorriko da, otsailaren 21ean, ostiralarekin; baina berarekin gitarra ekarriko du, eta, auskalo, agian berriro kontzertu sorpresa izanen dugu!



Patxi Irurzun
Utzamako liburuzaina



El Drogas ezkerrean eta Patxi Irurzun, liburuzaina, eskuinean ▲



▲ Otsailean La Fuga taldeko Pedro F. Razkin abeslariak bere lehenengo olerki liburua aurkeztuko du, Pedradas.

2019ko abendua

Gure alderdian, abenduan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

Jaiotzarik, guk dakigula, ez dugu izan.

Ezkontzak

Abenduan ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

BASABURUA Erbiti

Pilar Pellejero Iribarren, abenduaren 13an hil zen, 75 urtetan. **Palazioko** etxeakoandrea.



▲ Pilar Pellejero

IMOTZ Latasa

Natividad Erbiti Oraien, abenduaren 7an hil zen, 74 urtetan. **Matxikeneko** etxeakoandrea.



▲ Natividad Erbiti

ODIETA Ostiz

Miguel Juvera Irurita, abenduaren 19an zendu zen, 81 urtetan, **Juvera**-ren etxeiko nagusia.



▲ Miguel Juvera

BASABURUA Beruete

Ibai etorri zaigu 2019an

Ibai Prado Sanchez, Josemi eta Susana ren semea, 2019ko uztailearen 23an jaio zen, Iruñean eta Berueten, nola batean nola bestean, bizi dena.

Ez pentsa abenduko muttikoa denik. Ez, ez, 2019ko uztailearen 23an etorri zitzaigun Berueteke ostatura Ibai, Josemi eta Susanaren lehen semea. Ibai, eder eta zoriontsu topatu genuen Berueteke emakumeen besoetan ostatura hurbildu ginen lehengo egun batez.



“ Gure oroimenean izanen zarete ”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA 2020 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
00-05	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia
05-07	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Argi ibili	Musika lasaia	Musika lasaia
07-08:30	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Faktoria	Musika lasaia	Musika lasaia
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	09:00 Landaberri	09:00 Goiz kronika 09:30 Osasun Etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	AMARAUNA	AMARAUNA
11-13:30	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	11:00-13:00 Faktoria	AMARAUNA	AMARAUNA
	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	13:00-13:30 Goizak gaur Albistegia	12:00 Naiz Irratia zuzenean	12:00 Naiz Irratia zuzenean
13:30 14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	14:00 Bertsoinka	14:00 Musika
14:30 15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	15:00 Naiz Irratia zuzenean	15:00 Soinugela
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Naiz Irratia zuzenean	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Berria FM / Lur eta Murmur 17:00 Musika	Soinugela 17:00 Musika
18-19	Hiru Kortxea	Piperpolis	Kultur kuboia	Piperpolis	Nola aldatzen diren gauzak	Musika	Musika
19-20	Hiru Kortxea	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO KANTUZ	20:40 Portobello	20:40 Portobello
21-22	Atalka	Erro Ta Berri	Zuria Beltzez	ABDak	Zarata Zarautz	Portobello	Musika lasaia 21:30 Booktegiko irakurketak
22	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia	Musika lasaia

ESAN ERRAN IRRATIA: Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika

ARROSA SAREKO IRRATIAK: Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA: Metropoli Forala

BESTEAK...: Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM